

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako ekonomia % 3,2 hazi da, eta urtea % 3,1eko batez besteko igoerarekin ixteko bidean da, aurreikusitakoarekin bat

Estatu osorako hazkunde-aurreikuspenetan kalte egin du Kataluniako krisiak eta Ayerdi lehendakariordeak eragina izango duela uste du

Astelehena, 2017.eko urriak 30

Nafarroako ekonomiaren hazkundeak goranzko erritmoarekin jarraitzen du eta % 3,2an kokatu da dagoeneko, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago. BPG hiru hamarren jaitsi da hiruhileko honetan, % 0,9tik % 0,6ra, baina urtetik urteko balioari eutsi egin dio. Ayerdi lehendakariordeak aurreratu duen moduan, hori gertatu da interes-tasa baxuak arindu direlako, baina aurreikusita zegoela dagoeneko.



[Eskualdeko BPGren bilakaera](#) bat etorri da gainerako Estatukoarekin, non % 0,8ko hiruhileko igoera gertatu den. Bestalde, azken 12 hiletako hazkundea % 3,1ekoa izan da.

Jarduera-sektoreei dagokienez, industriaren hazkunderan Volkswagenen auto-fabrikazioaren % 16ko jaitsierak eragin du, fabrika Polo berriaren fabrikaziora egokitu behar izan delako. Hala ere, jaitsiera horrek ez du eraginik izan enpleguan; guztiz kontrakoa, gorantz jarraitzen du eta % 3,4 igo da. Industria-afiliazioetan ikusitakotik ondorioztatzen da enpresak iragankortzat hartzen ari direla beraien ekoizpenaren jaitsiera, kontratazioek jarraitzen dutelako.

Horren aldean, zerbitzuen jarduerak aurreikusitakoa baino handiagoa izan den jaitsiera izan dute. Ostalaritza eta merkataritza nabarmentzen dira, turismo-denboraldi ona izan dutelako; baita kontsumoa ere, eskualdeko hazkunderari laguntzen jarraitzen duena.

Manu Ayerdi lehendakariordearen arabera, "urte osorako batez besteko % 3,1eko igoera lortzetik hurbil gaude, eta hamarren bat gainetik ere gera liteke. Hirugarren urtea da jarraian Nafarroako ekonomiak % 3 inguru gora egiten duela, eta hori lorpen handia da".

Datorren urterako % 2,7ko igoera espero dugu, hala ere, Kataluniako krisia dela-eta zalantzak daude testuinguru ekonomikoan eta oraindik ez dakigu zer eragin izango duen. Ayerdi lehendakariordeak gogoratu du Katalunia merkataritza-kide ona eta industria-hornitzaile garrantzitsua

izateaz gain, turismoan erreferentzia ere badela. Berri negatibo horiek kontuan hartuz, lehendakariordeak ohartarazi du horrek atzeranzko eragina izan dezakeela, eta zuhur ibiliko direla gertaeren aurrean.